

# marxarte

CULTURA OCIO COMUNICACIÓN

## Atxagaren 'Xola', "konbentzionalkeriaren" aurka umorearekin lehiatzen den txakurra

Idazle asteasuarrak Mikel Valverde ilustratzailearekin sortutako bost ipuinak liburuki bakarrean bildu ditu Ereinek

Harri X. Fernández  
Ruben Plaza

**DONOSTIA** - Umorearen bidez "konbentzionalkeriaren" aurka eta moralismotik urrun, baina beti ere fikziotik, irudikatzen du Bernardo Atxagak haur literatura. Irudikatu diogu, baina idatzi ere, hala idazten du asteasuarrak. Eta horren eredu da, hain zuzen ere, *Xola*, bere burua lehoizat duen arratoi-txakurra. Erein argitaletxeak, euskaraz lehen aldiz, 1995tik 2015era Atxagak idatzi eta Mikel Valverdek ilustratutako bost ipuinak

-*Xolak badu lehoien berri, Xola eta basurdeak, Xola eta Angelito, Xola eta Ameriketako izeba eta Xola eta lapurrak*- liburuki bakarrean argitaratu ditu, aliteraziora jotzen duen izenburuarekin: *Holaxe bizi da Xola*. Idazlana atzo aurkeztu zuten Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean bi autoreek, Uxue Razquin Ereingo editorearekin batera. "Alde batetik, *Xola* kale-ratu eta orduan ezagutu genuenok, Euskal Herriko haur literaturan mugarrira izan den bildumarekin berriz gozatzea du helburu liburua eta, bestetik, orain estreinakoz haren

abenturak ezagutuko dituzten haurrek Xolaren unibertsoa deskubritzea, eta orrialde horietan agertzen diren marrazkiekin eta umorearekin disfrutatzea", azaldu zuen Razquinek.

Euskaraz modu bateratu argitaratu den lehen aldia bada ere, Britainia Handian ingelesez



Atxagak eta Valverdek sortutako arratoi-txakurra.

eta Japonian japonieraz formatu horretan kaleratu zuten. Atxagaren helduentzako eleberririk askorekin gertatu bezala, *Xola* txakurtxoak bisitatutako munduko hamaika txokoetatik ere berri onak iritsi dira; izan ere, Shogakukan argitaletxe japoniar garrantzitsuak, esaterako, haren mendeurrenaren harira osatutako haur literaturaren esparruan idatzitako 125 ipuin apartekoaren zerrendan sartu baitu Atxagaren eta Valverderen sorkuntza.

Txakurren eta katuen artean erabaki beharrena premian bizi den giza-



Mikel Valverdek eta Bernardo Atxagak 'Holaxe bizi da Xola' aurkeztu zuten atzo Donostian.

te honetan, txakurrengandik hurbilago sentitu izan dela aitortu zuen idazleak, haien "psikologia" hobeto ulertzeraino. Hain zuzen ere, haiekin hazi eta hartu-eman estuagoa izan omen du, itxura batean fikzioaren historian arrakasta handiagoa lortu duten felidoein baino. Xola bera, idazlearen anailetako batek etxean izan zuen txakurto koldar batean oinarritutako pertsonaia da. Animiak etxeko atearen soinuak entzun eta armairu baten barruan izarapean ezkutatu zeneko pasarteak kontatu nahi izan zuen hasiera batean. "Oraindik ere ez dut lortu hura kontatzetik", esan zuen barrez.

Atxagak bezala, Valverde ere nahia-go ditu txakurrak katuak baino, bigarren horien muturra marrazterako garaian arazoak izaten dituelako. Xola asmatzeko garaian, ordea, zenbait buruhauste izan zituela eman zuen aditzera. Txakurtxoa beltza izateko argibidea eman zion asteasuarrak. Gasteiztarrak ohikoa duen "marraren" erabilerekin ez zetorren bat, ordea. Horregatik, eta "espresibitate" handiagoa lortzeko, Hergéren Milu, Goscinny eta Uderzoren Ideafix eta Bill Wattersonen Calvin eta Hobbesen erreferentziak buruan zituela, grisetik hurbil dagoen zuri baten aldeko apustua egin zuen Xolarekin.

Banulorekin gertatu bezala—Atxagaren beste txakur-literarioa—, giza-kien antzera, Xolak ere hitz egiteko gaitasuna dauka. Ezaugarri horrek egiten du, Atxagaren ustez, "unibertsal". Jakina, "Japonian ere, txakurak txakur". Horra hor, munduko

bazter guztietan Xolak lortutako konplizidatearen arrazoia.

Hori bai, bere hizkera "ume batena-ren tankerakoa da"; kontzeptuak, gainera, nahastu egiten ditu, eta haur asko bezalaxe "uste handikoa da". "Oso poetikoa den inozentziarekin" bizi da Xola, hori bai, errealitateak "zaplazteko bat" eman arte, eta orduan sortzen dira egoera komikoak. "Uste dut barrea eta irribarrea oso osasungarriak direla eta nik horretan lagun ahal badut, lagundu egiten dut", esan zuen Atxagak, irribarrez noski.

**BESTE XOLA BATZUK** Beti izaten da pertsonaietara itzultzeko joera, batzuetan, ordea, autorearen eskuetatik ihes egiten dute. Ondo ikasia du hori Atxagak, esperientziaren bidetik, hori bera gertatu baitzaio Xolarekin. Ereinentzako bilduma errepasatzerako garaian, azkeneko bi ipuinen —Xola eta Ameriketako izena eta Xola eta lapurrak— bertsiotutako laburragoa proposatu zuen, idazterakoan "apur bat luzeegi" joan zela iruditzen baitziotzen. "Buruak, askotan, luze joaten da, eta eskua haren atzetik. Batzuetan komeni da eskuari geldiegi egoteko esatea", esan zuen. Eskua luze joate horretan, Xolaren inguruko argitaratu gabeko beste bi ipuin idatzita badituela aitortu zuen. Xolaren inguruko kontakizunak direla diogu, baina idazleak gaineratu zuenez, bere hurbilekoek idatzi horiek irakurritakoan, haietan Xolaren arrastorik ez zegoela esan omen zioten. Dirudienez, arratoi-txakurrak alde egin du idazlearen etxetik... oraingoz, behintzat. ●

## Poesia eta prosaren arteko "artefaktua", Bernardo Atxagaren hurrengoa

'Paradisuaeren kanpoko aldea' deituriko obra kaleratuko du aurten euskaraz, galizieraz, katalanez eta gaztelaniaz

"Aspalditik nabil poemak idazten eta azaltzen, baina ez nuen horrelako poema segida bat egin nahi"

BERNARDO ATXAGA  
Idazlea



**DONOSTIA** – Hitzaldi, aurkezpen eta errezitaldi betetako ibilbide oparoaren ostean, helduentzako fikzioarekin egin bezala, Bernardo Atxagak amaitu du Euskal Herrian publikoaren aurreko topaketekin ere. Horixe adierazi zuen idazleak atzo *Holaxe bizi da Xola* liburua aurkezteko Koldo Mitxelena Kulturunean antolatutako prentsurrekoan. Hain zuzen ere, kultur etxe horretan bertan iragan abenduan eskainitako poesia errezitaldiarekin esan zion asteasuarrak agur Euskal Herriko agertokiei. Esperientzia hura, ordea, ez da hutsala izango, ez horixe.

Atxaga *Paradisuaeren kanpoko aldea* deituriko obra prestatzen ari da, poesia eta prosa uztartuko dituen "artefaktua". Euskaraz, galizieraz, katalanez eta gaztelaniaz argitaratuko du aurten urtea amaitu aurretik. Koldo Mitxelena errezitaldiak gain, hainbat kartzelatan burututako poesia irakurketa eta azalpenetatik eratorritako sormen lanak ere jasoko omen ditu bertan. Idazleak "horrela-

ko poema segida bat" izaterik nahi ez, eta horregatik kartzelak, giro, pertsonaia eta esperientziak nahastu ditu. Alpatu zuenez, horien artean, Martutenen "komikoa" bihurtu zen euskal literatura zahararen inguruko hitzaldi bateko pasadizoa ere jaso omen du. —H.X. Fernández

# Patricia López Arnaiz se apunta a la venganza

Bermeo acoge el rodaje de 'Nina', segundo largometraje de Andrea Jaurrieta

◆ Harri X. Fernández

**DONOSTIA** – La cineasta navarra Andrea Jaurrieta se encuentra rodando en la costa vizcaina su segundo largometraje, *Nina*, protagonizado por la ganadora de un Goya Patricia López Arnaiz (*Ane*, *20.000 especies de abejas*) y por el ganador de una Concha de Plata a Mejor Interpretación Darío Grandinetti (*Hable con ella*, *Empieza el baile*). La filmación se está llevando a cabo a caballo entre Mundaka y Bermeo, localidad en la que ayer se rodaron algunas escenas en una jornada abierta a los medios de comunicación. El plan de grabación se prolongará, según fuentes de la

La cineasta navarra filma un "western femenino contemporáneo" sobre la 'vendetta' hacia un hombre de una mujer de mediana edad

productora de la película, durante seis semanas.

*Nina* es, en declaraciones de Jaurrieta, "un thriller, un western femenino contemporáneo, pasado y presente se funden en una historia de venganza". López Arnaiz se mete en la piel de la Nina que da nombre a la película. Es una mujer de 45 años que decide volver al pueblo costero donde creció y cobrar venganza del hombre que arruinó su vida y al que su municipio rinde homenaje. Aina Picardo, por su parte, interpreta la versión joven del personaje de López Arnaiz. El elenco se completa con Iñigo Aranburu, Mar Sodupe y el donostiarrá Ramón Agirre. ●



Andrea Jaurrieta dirige a Patricia López Arnaiz, ayer en Bermeo. Foto: David Herráiz

## Los centros forales se preparan para celebrar el Día de los Museos

El Euskal Itsas Museoa, el Zumalakaregi y el Igartubeiti celebrarán actividades los próximos días

**DONOSTIA** – El Museo Marítimo Vasco de Donostia, el Zumalakaregi de Ormaiztegui y el caserío Igartubeiti de Ezkio-Itsaso se sumarán mañana al Día Internacional de los Museos, que conmemorarán con una oferta de actividades específica y entrada gratuita a sus dependencias. Según informó ayer el Departamento de Cultura de la Diputación de Gipuzkoa, los tres museos forales celebrarán esa jornada

bajo el lema *Museos, sostenibilidad y bienestar*.

Entre las actividades más destacadas, figuran las visitas guiadas sin coste que ofrecerá el Euskal Itsas Museoa a su exposición *Moi-lak* sobre la función de los puertos vascos durante los dos últimos siglos, además de un taller de serigrafía sobre madera el sábado, día 20. El museo donostiarrá aprovechó para anunciar que "relanza" la temporada de visitas *Vive el puerto donostiarrá*, que organiza junto a la Kofradia Itsas-Etxea y la entidad Motoras de la Isla, de manera que desde finales de este mes y hasta finales de octubre ofrecerá la opción de "descubrir los secretos"

del muelle, subirse a un barco artesanal y degustar productos del mar.

Por su parte, el caserío museo Igartubeiti ha organizado para el domingo 21 la actividad *Los secretos de las plantas*, en el que los participantes darán un paseo para identificar y recoger diversas plantas medicinales por el entorno.

Además de la jornada de puertas abiertas de mañana, el Zumalakaregi ha organizado para el sábado un paseo y taller gastronómico titulado *De la vía verde a la mesa* que recorrerá la vía Mutiloa-Ormaiztegui para analizar las propiedades culinarias de algunas plantas con las que se elaborarán y degustarán varias recetas. —Efe